

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak gaur gauean bere errepideak argiztatzeko energia aurrezteko neurriak abian jarriko ditu

Aire zabaleko eta tunelen sarrera-irteeretako argiztapenari eragingo die, urtean 333.000 euro aurreztuz eta ingurumenean inpaktu txikiagoa sortuz

Jueves, 29 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak errepideen foru-sarean energia aurrezteko neurri-sorta bat abian jarriko du gaur gauean eta, batez ere, tunelak egokitzeko zonaldeetako argiztapenari eragingo dio (tuneletara sartzeko hasierako metroak, eta baita irteerakoak ere bi noranzko baditu), bai eta Iruñeko Ekialdeko Ingurabideko egungo argiztapenari ere.

Neurri horrekin urtean 333.000 euro aurreztuko dela kalkulatu da eta, horri esker, ingurumen-baldintzetan, orduko urtean 2.091.000 kilowatt-eko energia aurreztea.

Tuneletan egin beharreko jardueri dagokienez, egungo argi-errefortzuak kenduko dira aldi lainotsuetan tunelak egokitzeko zonalde guztietan, Belate, Almandoz, Bera eta Sunbillan salbu. Nolanahi ere, gaueko argiztapena ez da gutxituko tuneletako zonalde batean ere.

Iruñeko Ekialdeko Ingurabidean, erdibitzailearen argiztapena murriztuko da Cordovilla eta NA-150 errepidearen elkarguneko biribilgunearen artean (Olatz eta Itaroa arteko saihebidetaren artean). Erdibitzailearen gainerako argiak gauerdia eta goizaldeko 05:00ak artean itzaliko dira, trafikoa intensitate asko jaisten den uneekin bat eginez. Dena den, Ingurabideko lotuneen argi guztiak piztuta segituko dute gau osoan, bide-segurtasuneko puntu kritikoak baitira.

Zifrei dagokienez, neurri horrekin tuneletako egokitzapen-zonaldeetako 1.523 proiektore itzaliko dira, eta 202 argi Iruñeko Ekialdeko Ingurabidean (404 argi 00:00ak eta 05:00ak arteko denbora-tarteetarako).

Aurrezki-plan hori egin aurretik, Sustapen eta Etxebizitza Departamentuko Zaintza Zerbitzuak zenbait argiztapen-proba egin ditu tuneletan nahiz Iruñeko Ekialdeko Ingurabidean.

2006tik murriztutako bide-argiztapena

2006. urtetik, Nafarroako Gobernuak bere errepide-sareko argiztapena pixkanaka murrizten joan da, fluxua murriztuz atari zabaleko instalazioen pizte-aldi guztian eta egun eguzkitsuetan tuneletako sarrera egokitzeko zonaldeen deskonexioa eginez (Belate eta Almadotzen salbu). Gainera, 2008an A-12ko lotuneko argiztapena erabat murriztu zen 2008 an, Zizur Nagusiaren parean, arku itzaliz eta A-21eko enborreko argien

% 50 etengabeko deskonexioa eginez.

Estatuak ere pixkanaka neurri murriztaileak hartu ditu 2010etik, trafikoaren intentsitateari eta bidezatiko istripuen arriskuari erreparatur, eta ordu-tarteak kontuan hartuz. Gainera, 2011ko apiriletik argiztapen-fluxua murriztu egin da oro har, baita tunelen barnealdean ere.